Ekaia, 2023, 44, 63-80
https://doi.org/10.1387/ekaia.22804

ekaia
ZIENTZIA eta TEKNOLOGIA ALDIZKARIA

ISSN 0214-9001 – eISSN 2444-3255

Photovoice tresna elikadura-ingurunearen azterketa kualitatiborako

(Photovoice as a tool for qualitative analysis of the food environment)

Ainara San Juan,[1,2] *Irrintzi Fernández,*[1,2] *Amets Jauregi,*[1] *Irati Ayesta,*[1] *Silvia Caballero,*[1,2] *Julia Fernández,*[1] *Leyre Gravina*[1,2]*

[1] Erizaintza Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Leioa (UPV/EHU)
[2] Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketarako Institutua, Barakaldo, Espainia

LABURPENA: Inguruneko ezaugarriek eragina izan dezakete herritarron portaera osasungarrietan. Badirudi bizi garen tokiaren eta gure elikadura-ohituren artean erlazioa dagoela. Beraz, ingurunea bizilagunen ikuspegitik ezagutzea beharrezkoa da biztanleriaren elikaduran eragina duten determinatzaileak baloratzeko. Ikerketa gutxik aztertu dituzte hiri-inguruneak herritarren ikuspuntutik. Horregatik, azterlan honen helburua Bilboko auzo bateko elikadura-ingurunearen diagnostiko komunitarioa egitea izan zen, eta horretarako Photovoice Partaidetza-Ekintza Ikerketa metodologia erabili zen. Proiektu honetarako parte-hartzaileak Auzo Elkarteen bidez bildu ziren. Photovoice-rako, inklusio-irizpideak betetzen zituzten gizon eta emakumeez osaturiko talde heterogeneoa sortu zen. 2017ko apiriletik uztailera, aukeratutako 6 auzotarrek bi orduko iraupeneko 5 talde-saiotan parte hartu zuten, eta haiek ateratako argazkiei buruzko eztabaida kritikoak egin ziren. Auzoko elikadura-ingurunea deskribatzeko 30 argazki batu ziren guztira. Adostasun-prozesu baten ondoren, parte-hartzaileek 9 kategoria identifikatu zituzten eta horiei lotutako 13 argazki adierazgarri aukeratu zituzten. Amaitzeko, emaitza horietan nabarmendutako ezaugarriak 6 gai kontzeptualetan batu ziren: 1) Ohitura txarrak, 2) Kultura-aniztasuna, 3) Harreman sozialak, 4) Iraunkortasuna, 5) Merkataritzaren eraldaketa, 6) Ohitura osasungarriak. Herritarrek beren elikadura-ingurunea hobetzeko proposatutako gomendioak Bilboko arduradun politikoei aurkeztu zitzaizkien. Photovoice proiektuaren bitartez herritarrek beren elikadura-inguruneari buruz zuten ikuspegia ezagutu zen. Auzotarren eskutik lortutako ondorioak lagungarriak izan daitezke tokian tokiko politika eta esku-hartzeak gidatzeko, elikadura-ingurune osasungarriagoak sustatzeko helburuarekin.

HITZ GAKOAK: hiri osasuna, elikadura-ingurunea, zientzia herritarra, auzoa, Photovoice, Partaidetza-Ekintza Ikerketa.

ABSTRACT: *The characteristics of the environment can influence the healthy behavior of citizens. There seems to be a relationship between the place where we live and our eating habits. Therefore, it is necessary to know the environment from the perception of the neighbors to assess the factors which influence the diet of the population. There have been few studies that have analyzed urban environments from the point of view of the citizens. Thus, the objective of this study was to carry out a community diagnosis of the food environment of a neighborhood in Bilbao, using the Participatory Action Research (PAR) methodology Photovoice. Participants for this project were recruited through Neighborhood Associations. The Photovoice group was heterogeneous, consisting of men and women who met inclusion criteria. From April to July 2017, the 6 selected neighbors participated in 5 two-hour group sessions where critical discussions were held on the photographs taken by them. A total of 30 photographs were taken which reflected the neighborhood food environment. Through a consensus-building process, participants identified 9 categories and selected 13 related representative photographs. Finally, the characteristics of their food environment were grouped into 6 conceptual themes: 1) Bad habits, 2) Cultural diversity, 3) Social relationships, 4) Sustainability, 5) Retail transformation, 6) Healthy habits. To sum up, citizens' proposals to improve their environment were established and exposed to Bilbao's policy makers. This Photovoice project made it possible to analyze citizens' perception of their food environment. The conclusions obtained from neighbors can help guide local policy and interventions with the aim of promoting healthier food environments.*

KEYWORDS: urban health, food environment, citizen science, neighborhood, Photovoice, Participatory Action Research.

**** Harremanetan jartzeko / Corresponding author:*** Leyre Gravina. Erizaintza Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Sarriena Auzoa (48940 Leioa, Bizkaia - Euskal Herria); eta Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketarako Institutua, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Gurutzetako Plaza, s/n (48903 Barakaldo, Bizkaia - Euskal Herria). – leyre.gravina@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0001-7641-1736

Nola aipatu / How to cite: San Juan, Ainara; Fernández, Irrintzi; Jauregi, Amets; Ayesta, Irati; Caballero, Silvia; Fernández, Julia; Gravina, Leyre (2023). «Photovoice tresna elikadura-ingurunearen azterketa kualitatiborako». *Ekaia*, 44, 2023, 63-80. (https://doi.org/10.1387/ekaia.22804).

Jasotze-data: 2021, maiatzak 12; Onartze-data: 2022, urriak 4.

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2023 UPV/EHU

Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

1. **SARRERA**

Elikadura ez-osasuntsua jarraitzea heriotza-tasarekin eta erikortasunarekin lotura duen arrisku-faktore nagusia da. Ohitura aldagarria denez, mundu mailan gertatzen diren 5 heriotzetatik 1 elikaduraren kalitatea hobetuz ekidin daiteke [1]. Izan ere, elikagaien aukerak eragina du herritarren osasunean eta obesitate-datuetan [2, 3]. Adibidez, hainbat egoera kronikoren agerpena, hala nola gaixotasun kardiobaskularrak, minbiziak, diabetesa eta abar, lotuta dago haragi gorri eta prozesatu, zereal ale findu eta azukredun janarietan oinarritutako elikadura jarraitzearekin. Era berean, fruitu, barazki eta zereal ale oso edo integraletan aberatsak diren dietak jarraitzeak gaixotasun horien prebentzioan lagundu dezake [4].

Horregatik, elikadura-ohitura osasungarriak sustatzeko estrategia berriak behar dira osasun publikoan. Elikadura jatorri anitzeko portaera konplexua da, non faktore indibidualek eta ingurumen-faktoreek elkar eragiten duten [5, 6]. Beraz, elikatzeko moduarekin harremana duten faktoreak ezagutzea eta ulertzea ezinbestekoa da dieta osasuntsuak sustatzeko eta elikadurari zuzendutako politika bereziak garatzeko [7, 8]. Elikadura-ingurunea banako batek elikagaiak eskuratzeko, prestatzeko eta kontsumitzeko hartzen dituen erabakiak baldintzatzen dituen testuinguru fisiko eta soziokulturala da. Horrela, elikadura-inguruneak eragina dauka testuinguru jakin batean bizi diren herritarren elikatzeko moduan. Faktore soziokulturalen artean, gizarte-ohiturak eta -arauak daude. Faktore fisikoei dagokienez, elikagaien eskuragarritasunak eta baldintza ekonomikoek dute garrantzia [9, 10].

Adibidez, herrialde garatuetako hirietan elikagai-eskaintza anitza dago, eta horrek kaloria, koipe, azukre eta gatz handiko produktuak prezio merkera jartzen ditu eskura. Gainera, janari lasterrarekin lotutako publizitate masiboak ere modu ez-osasungarrian jatera bultzatzen du [11]. Beste alde batetik, elikagai osasuntsuen eskuragarritasunak dieta osasungarriagoekin lotura duela frogatu dute hainbat ikerketak [12, 13]. Hala, ohitura ezegokien arrazoiak ezagutzeko, ezinbestekoa da, besteak beste, elikadura horretan parte hartzen duten faktoreak zeintzuk diren aztertzea. Beraz, nahitaezkoa da gure elikadura-inguruneak aztertzea eta osasun- edo gizarte-desorekek duten eragina ikertzea [14].

Espainiako elikadura-ohiturak hainbat ikerketa kuantitatiboren bitartez aztertu dira jada [15]. Hala ere, elikadura-ingurunea ezagutzeko, metodologia kualitatiboak erabiltzeak aukera ematen du neurketa objektiboak esperientzia subjektiboekin erlazionatzeko [16]. Elikadura-ingurunea aztertzeko, askotariko metodologia kualitatiboak erabili dituzte hainbat ikerketak elikagaien eskuragarritasuna neurtzeko helburuaz [9]. Haien artean diren Partaidetza-Ekintza Ikerketa *(Participatory Action Research (PAR))* eta Herritarren Parte-Hartzean Oinarritutako Ikerketa *(Community-Based*

Participatory Research (CBPR)) metodologiak baliagarriak dira tokiko elikadura-ingurunea bertako ikuspegi batetik ulertzeko eta bizilagunek ikerketa-prozesu osoan parte hartu ahal izateko [17-20]. Gainera, partaideen hausnarketa, kontzientziazioa, ahalduntzea eta gizarte-ekintza bultzatzen dira [21].

Testuinguru honetan koka dezakegu Photovoice Partaidetza-Ekintza Ikerketa. Metodologia honen bitartez, parte-hartzaileek argazkiak atera eta elkarrizketa kritikoak egiten dituzte taldekako eztabaida bidez [22]. Horrela, partaideak ikertzaile nagusi bilakatzen dira, eta beraz, ikertzaileen eta partaideen arteko aldea murrizten da [22, 23]. Photovoice metodologia lehenago ere erabili izan da elikadura-ingurunea ikuspegi komunitario batetik ikertzeko [24-26].

Metodologia honen bitartez, herritarrek beren elikadura-inguruneari buruz duten ikuspegia aztertu daiteke. Horretaz baliaturik, ikerketa honen helburua izan zen Bilboko maila sozioekonomiko altuko auzo batean bertako auzokideen elikadura-ingurunea hautematea eta aztertzea.

2. METODOLOGIA

2.1. Ikerketaren diseinua eta planteamendua

Photovoice proiektua 2017an garatu zen maila sozioekonomiko altua zuen Bilbo hiriko auzo batean. Horretarako, ezinbesteko harremana sortu zen Osakidetzarekin (Euskal Herriko Osasun Sistema Publikoa), Bilboko Udaletxearekin eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin. Ikerketa hau Helsinkiko dekretuaren arabera egin zen, eta Basurto Hospitaleko Ikerketa Klinikoko Etika Batzordeak onetsi zuen.

Ikerketa garatzeko gune gisa Deustu auzoa aukeratu zen. Izan ere, Deustuk historia luzea du Bilbo hiriaren barruan eta handia da bertako herritarren parte-hartzea. Bilboko Udalaren Datuen katalogoaren arabera, Deustuko auzoak 18.999 biztanle ditu; hau da, Bilboko biztanleria osoaren % 5,5 batzen da auzo horretan. Ezaugarri sozioekonomikoei dagokienez, % 7,5eko immigrazioa du, % 6,8ko langabezia, eta lehen mailako ikasketarik ez duten pertsonen ehunekoa % 1,31koa da [27].

2.2. Parte-hartzaileak eta lagina

Berariazko laginketa-estrategia bat erabili zen parte-hartzaileak erakartzeko [28]. Hori lortzeko, informazio-orriak banatu ziren eta sare sozialen bidez zabaldu, aurkezpen laburrak egin, auzo elkarteekin harremanak landu eta kalean jarritako iragarkiak erabili ziren. Parte-hartzaileen aukeraketa egiteko irizpideak honakoak izan ziren: 1) auzoan gutxienez 5 urtez bizi

izana; 2) gaztelaniaz hitz egitea; 3) kamera digitala edo *smartphone*a arazorik gabe erabiltzea; eta 4) taldeko eztabaida-saioetara biltzeko konpromisoa hartzea.

Azkenik, proiektuan 6 helduk hartu zuten parte. Partaide guztiei eman zitzaien proiektuaren berri, eta baimen informatu eta irudi-eskubideen orriak bete zituzten ikerketan parte hartu ahal izateko. Parte-hartzaileek ez zuten pizgarri ekonomikorik jaso. Ordainetan, proiektutik argitaratutako liburuaren ale bana jaso zuten.

2.3. **Prozedura**

Photovoice taldea osatzeko, metodoaren diseinatzaile Caroline C. Wang-en metodologia jarraitu zen, non 6 parte-hartzaileko minimoa proposatzen den [29]. Horrela, Deustu auzoko 2 gizonezkok eta 4 emakumek hartu zuten parte.

Guztira bost saio egin ziren, bakoitza 2 ordukoa, 2017ko maiatza eta uztaila bitartean. Partaideez gain, bi ikertzailek eta osasun arloko teknikari batek ere parte hartu zuten saioetan. Azken hauek saioak gidatu eta oharrak hartu zituzten. Saio guztiak grabatu egin ziren, eta amaieran hitzez hizko transkripzioa egin zen *nvivo®* programaren bidez.

— *1. saioa*. Ikertzaileek ikerketarako gaia, talde-saioen ordutegia eta Photovoice metodologia aurkeztu zituzten. Photovoice proiektuaren etika-kontuak ere azaldu ziren (datuen babeserako legeak eta segurtasun pertsonala, adibidez), eta parte-hartzaileek inprimaki labur bat bete zuten ezaugarri soziodemografikoak jasotzeko. Ondoren, kamera bat eman zitzaien eta argazkilari profesional batek eskainitako argazki-tailerrean parte hartu zuten. Saioaren amaieran, argazkiak ateratzeko eskatu zitzaien haien dietan eragina izan zezaketen auzoko elikadura-inguruneko ezaugarri guztiei.
— *2. saioa*. Egindako argazki guztietatik bere auzoko elikadura-ingurunea hoberen islatzen zuten bost aukeratu behar izan zituen partaide bakoitzak [25, 30, 31], eta ikertzaileei posta elektronikoz bidali, kolorez inprimatu ahal izateko. Saioan argazkiak aurkeztu zituzten partaideek, lehenengo talde-eztabaida gisa.
— *3. saioa*. Parte-hartzaileek aukeratutako argazkiei buruz eztabaidatzen jarraitu zuten, beren elikadura-inguruneari buruzko alde positiboak islatuz. SHOWED metodo mnemoteknikoa erabili zen talde-eztabaida errazteko, hurrengo galderak abiapuntutzat hartuz: Zer ikusten duzu hemen? (What do you See here?); Zer gertatzen ari da benetan? (What is really Happening?); Nolako zerikusia du gure bizitzan? (How does this relate to Our lives?); Zergatik gertatzen da arazo edo onura hau? (Why does this problem or strength

Exist?); Zer egin dezakegu haren inguruan? (What can we Do about it?) [23, 32].

— *4. saioa.* Aurreko saioko eztabaida jarraitu zen, baina aldi honetan parte-hartzaileek beren elikadura-inguruneari buruzko alde negatiboak aztertu zituzten. SHOWED metodoa erabili zen berriz ere.

— *5. saioa.* Azken saio honetarako, parte-hartzaileak beren elikadura-ingurunea hobeto deskribatu eta ulertzeko gai ziren jada. Hala, aukeratutako argazkiak kategoria eta azpi-kategorietan sailkatu zituzten auzoaren ikuspegi orokor bat lortu ahal izateko.

Hautatutako, kategorizatutako eta sakonki landutako argazki horiek proiektua ezagutarazteko jardueretan erabili ziren. Horren adierazgarri izan zen 2018ko uztailean antolatu zen argazki-erakusketa. Bertan, parte-hartzaileek beren emaitzak eta ondorioak aurkeztu zizkieten hainbat udal-politikariri, osasun zerbitzuetako kideei, ikertzaileei eta bizilagunei [31, 33].

2.4. **Datuen analisia**

Lan honetakoa baino lehenago burutu diren Photovoice proiektuen jardunbide bera jarraituz, datuen analisia partaidetza-ikerketaren bidez egin zen [23, 25, 34]: parte-hartzaileak izan ziren argazkietatik sortutako kategoria eta azpi-kategoriak kodetzearen arduradunak. Sailkapen horretan oinarrituta, ikertzaileek «gerturatze subjektibo» estrategia analitiko-deduktiboa erabili zuten kategoria horiek taldekatzeko eta gai zabalagoetan biltzeko [35, 36]. Sinesgarritasuna eta egiaztagarritasuna bermatzeko, azkeneko gai horiek parte-hartzaileekin partekatu eta aztertu ziren, eta haiek nahi zutenean argazkiak edota iruzkinak gehitu ahal izan zituzten [18].

3. **EMAITZAK**

Bilboko maila sozioekonomiko altuko Deustu auzoko 6 bizilagunek hartu zuten parte ikerketan. Haien ezaugarri soziodemografiko nagusiak 1. taulan laburbildu dira.

1. taula. Deustuko parte-hartzaileen ezaugarri soziodemografikoak.

		N = 6
Sexua	Emakumeak	4 (% 66,7)
	Gizonezkoak	2 (% 33,3)
Jatorria	Bertokoak	4 (% 66,7)
	Etorkinak	2 (% 33,3)
Ikasketa-maila	Lehen hezkuntza	0
	Bigarren hezkuntza	2 (% 33,3)
	Unibertsitate-ikasketak	4 (% 66,7)
Egoera zibila	Ezkongabeak	0
	Ezkonduak	5 (% 83,3)
	Alargunak	1 (% 16,7)
Lan egoera	Lanean	2 (% 33,3)
	Lanik gabe	0
	Erretiratuak	4 (% 66,7)
	Etxeko andreak	0
Hilabeteko batez besteko diru sarrerak	<600€	0
	601-1.200€	0
	1.201-2.000€	2 (% 33,3)
	>2.000€	4 (% 66,7)

1. irudia. Photovoice eztabaida-saioetatik sortutako mapa kontzeptuala: kategoriak eta azpikategoriak.

Parte-hartzaileek guztira 30 argazki egin zituzten. Haietatik 13 aukeratu zituzten beren auzoko elikadura-ingurunea hoberen islatzen zutela iritzita. Azkenik, eztabaida-saioetan eta ikerketa taldearen laguntzarekin, aukeratutako argazki horiek 9 kategoriatan sailkatu zituzten. Kategoriak eta azpikategoriak 1. irudian laburbiltzen dira.

Hasierako sailkapen horretatik abiatuta (1. irudia), irudiko kategoriak gai handiagoetan bildu zituzten ikertzaileek. Horrela, azkenean 6 gai zehaztu ziren: 1) Ohitura txarrak, 2) Kultura-aniztasuna, 3) Harreman sozialak, 4) Iraunkortasuna, 5) Merkataritzaren eraldaketa, eta 6) Ohitura osasungarriak.

3.1. **Ohitura txarrak**

Parte-hartzaileek elikagai eta edari ez oso osasungarrien gehiegizko kontsumoa aipatu zuten, helduen zein gazteen kasuaz arituta. Talde-analisian alkoholdun edarien kontsumoaren normalizazioaz hitz egin zen (ikusi 2. irudia). 64 urteko gizonak honako hau esan zuen: *«Erakusleihoetan alkohola esplizituki erakusten da adin guztietako pertsonentzat»*.

2. irudia. *«Kontsumo arduratsua? Noraino? Ikasten da? Noren aldetik?»*. (Gizona, 64 urte, erretiratua).

Bestalde, ospakizunetan elikagai azukreztatuak kontsumitzeko ohitura handia dagoela ere adierazi zen. 55 urteko emakumeak zera esan zuen: *«Gozoa zerbait positiboarekin lotzen da. Gehiegi hartzea txarra da, baina neurrian janda ona»*.

Auzoko pizzeriaz ere hitz egin zen, partaideen ustez gazteen kontsumorako eta ospakizunetarako gunea dena. 43 urteko emakumeak honakoa gaineratu zuen: «*Promozio egunetan eta asteburuetan beteta egoten da. Gazte askok horrelako jakiak erosten dituzte eskaintza asko daudelako; edari azukredunekin egindako promozioak asko erosten dira etxera eramateko*».

3.2. **Kultura-aniztasuna**

Etorkinek elikadura-ingurunean eragina zutela adierazi zuten parte-hartzaile guztiek (ikusi 3. irudia). Honakoak nabarmendu nahi izan zituzten: atzerritarren presentzia eta kanpoko produktuen kontsumoaren gorakada, eta, aldi berean, etorkinek berek kudeatutako janari-denden kopuruaren igoera. 43 urteko partaide etorkinak honakoa esan zuen horren inguruan: «*Horrek erakusten du gure auzoak irekita dituela kultura-aniztasunerako ateak, eta bereziki janariaren sektorean. Gure esku dago ate hori gehiago edo gutxiago zeharkatzea, baina egon badago*».

3. irudia. «*Beste zapore batzuei irekitako atea. Kulturartekotasuna*». (Emakumea, 43 urte, agente komertziala).

Horrez gain, partaide guztiek nabarmendu zuten azken urteetako establezimenduen eraldaketa, eta horrekin batera produktu berrien salmentaren bultzakada egon zela.

3.3. **Harreman sozialak**

Kategoria honetarako aukeratutako argazkiek argi utzi zuten auzoko bizilagunek nola ospatzen zituzten ekitaldiak, familia eta lagunekin batera janez. Gainera, zenbait argazkik sozializatzearen garrantzia erakusten zuten (ikusi 4. irudia). Horrela, ekitaldiak ospatzeko tradizioa azpimarratu zuten parte-hartzaile guztiek. Familia eta lagunekin astero elkartzeko aitzakia gisa ikusten zuten janaria, harreman sozialen garrantzia adieraziz.

4. irudia. *«Jakintzak eta zaporeak partekatzeko leku eta espazio bat».* (Gizona, 64 urte, erretiratua).

Esandakoa babesteko, hona 69 urteko gizon batek esandakoak: «*Deustun pintxoen historia dago, sustatu egiten da*»; «*Euskadin ospakizunak janez ospatzen dira. Gehienetan gehiegi jaten eta edaten da*». Parte-hartzaileek gaineratu zuten auzoan kultura handia zegoela txokoak izateko, eta toki horiek garrantzitsuak zirela auzo barruko gizarte-jardueretarako.

3.4. **Iraunkortasuna**

Herritarrak kezkatuta zeuden sortzen den zaborragatik eta hura kudeatzeko moduagatik. Horren adibidetzat edukiontzi marroiak aipatu zituzten:

ia hutsik zeudela egiaztatu zuten, eta gainera partaideetako askok ez zuten zabor horren prozesamenduaren berririk (ikusi 5. irudia). Horrela adierazi zuen 68 urteko emakumeak: «*Herritarrok ez dakigu zakar horrekin zer egiten den, populazioa informatuko balitz, motibazioa areagotuko litzateke, eta erabilera egokia emango litzaioke zaborrari*».

5. irudia. *«Landare barri baten elikagaia da, aprobetxa ezazu eta ez kontaminatu»*. (Emakumea, 68 urte, erretiratua).

64 urteko gizonak honakoa esan zuen ildo berdinetik: «*Askok ez dakigu zaborrak nola bereizi: janaria, edariak eta benetako zaborra*». 55 urteko emakumeak gaineratu zuen: «*Sozializatzea ona da, baina ez zaborretik gertu*». Bestalde, 70 urteko emakume batek gainontzekoei gogorarazi zien sasoiko produktu ekologikoak kontsumitzea birziklatzea ere badela; izan ere, elikadura-alternatiba honen arabera, oihalezko poltsak erabiltzen badira ontziak erabiltzea saihesten da.

Denak ondorio berera iritsi ziren. Agintarien eta politikaren axolagabetasuna aldarrikatzen zuten, eta horrek nola eragin zezakeen bizilagunen dietan.

3.5. **Merkataritzaren eraldaketa**

Herritarrek kezka adierazi zuten farmazien inguruan, supermerkatu gisara ikusten baitzituzten (ikusi 6. irudia). 43 urteko emakumeak esan zuen

bezala, *«Badirudi osasuna lapiko batean saltzen ari direla. Iragarki engainagarria da. Farmaziek boutique baten antza handiagoa daukate osasun dendarena baino, gaur egun denetarik daukate»*. Hori indartuz, 68 urteko emakumearen hitzak: *«Mota horretako produktuen kontsumoak gora egin du, baita horiek eskaintzen dituzten establezimenduen kopuruak ere»*. Bertakoek zalantzan jarri zuten farmazietan elikagaiak saltzearen egokitasuna, herritarrengan nahasketa ekar zezakeelako. 43 urteko emakumeak erantsi zuenez: *«Osasuna eta kontsumoa nahasten dira. Zenbateraino da osasuntsua? Ala kontsumo hutsa ote da?»*.

6. irudia. «*Ongizatea bilatzeko supermekatua*». (Emakumea, 43 urte, agente komertziala).

3.6. **Ohitura osasungarriak**

Bizilagun guztiek onartu zuten beren auzoan kalitate handiko elikagai ugari zegoela, batez ere auzoko merkatuan (ikusi 7. irudia). 43 urteko emakumeak esan zuen: *«Fruta eta barazkiak janez ondo elikatzen garela ematen du»*. 64 urteko gizonak gaineratu zuen: *«Erosketa maila desberdinetarako leku aproposa da merkatua, eta gainera erosoa da, produktuen aukera handia dutelako»*. 55 urteko emakumeak adierazi zuenez: *«Auzoko merkatuan supermerkatuan egiten ez den erosketa mota egiten da, produktu freskoak erosten dira batez ere: arrainak, frutak, barazkiak»*. 70 urteko emakumea sasoiko produktu ekologikoen alde agertu zen*: «Produktua*

freskoa da. Babestu beharreko zerbait da». Gainera, denek aipatu zuten auzoko merkatua komunikazio-espazioa eta bizikidetzarako ingurune oso polita zela.

7. irudia. *«Elikadura on batean dago digestiorako gakoa»*. (Emakumea, 70 urte, erretiratua).

4. EZTABAIDA

Ikerketa-proiektua garatu ondoren agerian geratu da herritarrek ohitura osasungarriak eta ez hain osasungarriak izan ditzaketela, eta beste ezaugarri batzuen eragina egon daitekeela, hala nola gizarte-harremanak, saltokiak, kultura-aniztasuna eta jasangarritasuna. Maila sozioekonomiko altuko auzo bateko herritarren ikuspegitik tokiko elikadura-ingurunearen diagnostiko komunitarioa egin den lehen ikerketa da hau. Horrela, lortutako emaitzek ebidentzia berria gehitzen dute hiriko ingurumen-faktoreek herritarren elikaduran duten eraginean.

Ikerketa honetan erakusten diren emaitzak bat datoz beste egile batzuen aurkikuntzekin [25, 37, 38], biztanleen dietan eragin dezaketen hainbat alderdi nabarmentzearen aldetik: faktore sozialak (hau da, kultura-aniztasuna edo gizarte-harremanak), faktore fisikoak (elikadura-biltegi tradizionalen desagerpena eta supermerkatuen presentzia, adibidez) eta makro-faktoreak (auzo-hezkuntza).

Elikadura-portaerekin erlazionatu diren faktore sozialak hainbat dira [39], hala nola familiako otorduen erregulartasuna, janariaren inguruko harreman sozialak, gizarte-babesa, eta elikadura osasungarriaren aldeko arauak. Azterlan honen emaitzen antzera, senide eta lagunekin jateak elikagaien aukeraketan eragina zuela erakutsi zuen aurreko ikerketa batek ere [40]. Honakoan ikusi denez, auzotarrek etxetik kanpo jateko eta edateko biltzeko ohitura zuten. Txokoetan edo pintxo-potean batzeak osasungarriak ez diren hainbat portaera sustatzen ditu, hala nola janari hiperkalorikoen eta alkoholaren kontsumoa. Politika publikoen arduradunek hori kontuan izan beharko lukete. Izan ere, hainbat ikerketak adierazi dute harreman sozialek eragina dutela elikagaien erosketan eta kontsumoan [38], eta gizarte-babesak garrantzi handia duela pisuaren kontrolean [40, 41].

Elikaduraren eta osasunaren inguruko literatura berri askok ingurune fisikoan ipini du arreta, auzoko elikadura-saskiaren barietatea, eramateko jakien lokalen hurbiltasuna eta eskuragarri dauden elikagai motak azpimarratuz [42-44]. Lehenago egin diren ikerketek supermerkatuetako elikagaiak kalitate handiagokoak eta prezioz eskuragarriak zirela erakutsi dute [45, 46], baina ikerketa honetan parte hartu duten auzoko nagusien lehentasuna gertuko denda txikiak eta auzoko merkatuak ziren, elikagai freskoak eskuratzeko.

Etxeko errenta eta hezkuntza maila altuak fruitu- eta barazki-kontsumo handiagoarekin lotu ziren [47]. Hala ere, gozoki kontsumoa oso ohikoa zen errenta altuko auzoetan ere, maiz erabiltzen baitziren umeentzako sari gisa. Gainera, espazio berriek (adibidez, farmaziek) auzotarren elikadura-aukeretan duten eragina ere nabarmendu zen. Horrelako dendetan, publizitatearen eraginez elikadura-osagarriak saltzen dira eta horrek zalantzak sortzen dizkie bezeroei produktu horiek benetan osasungarriak diren edo ez jakiteko orduan.

Elikagaien salerosketan eragina izan dezaketen beste ezaugarri batzuk hauek dira: arraza/etnikotasuna eta finantza-mugak [48]. Bizilagunen iritziz, etorkinen presentzia handiagoa da gaur egun auzoan, eta atzerriko produktuen eta janari-saltokien eskaintza eta aniztasuna ugaritzeak produktu horien elikadura-kontsumo ohiturak areagotzea dakar.

Beraz, Photovoice proiektu honek herritarren elikadura-lehentasun eta -jokabideetan eragin dezaketen faktoreak identifikatzen lagundu du. Mundu osoko hainbat hiri eta herrialdetan erabili den metodologia honek [32] ikuspegi erabilgarri berri bat ere eskain lezake osasun publikoaren ikerketarako eta praktikarako. Metodo honen balioa bere emaitzen pisuari dagokio (gizarte-ekintza proiektuak, identifikatutako alderdiak, beharrak…), hiritarren parte-hartzea sustatzen du, eta horrela politikak eraldatu, osasun publikoan ikertu eta ahalduntze indibiduala bermatzen du, osasuna hobetzeko helburuarekin [21]. Komunitateak berak zuzendutako aurkikuntzak politikariekin

eta eragin handiko beste herritar batzuekin partekatu ziren. Asmo horrekin ere, ikerketaren emaitzekin argazki erakusketa publikoa eta herritarrentzako mintegiak antolatu ziren (https://mibarriosaludable.com/eu/fotovoz aren-aurkezpena-jardunaldian/), eta parte-hartzaileen argazkiak biltzen zituen doako deskarga-liburu bat ipini zen denen eskura (https://mibarriosaludable.com/eu/argazki-liburuaren-argitalpena/). Photovoice tresnak izan dezakeen eragin soziala oraindik ebaluatu ez bada ere, komunitateak ekintzara mugiarazten dituenez, politiketan eragina izan dezakeela argudiatzen dute hainbat egilek [17, 49, 50].

Ikerketa-metodologia honek mugak ditu. Alde batetik, zenbait parte-hartzailek argazkiak zeri atera ez zekitela edo kalean argazkiak ateratzen ibiltzeak lotsa ematen ziela adierazi zuten. Beraz, argazkiak ateratzeko prozesuan garrantzitsua da parte-hartzaileak eroso sentiaraztea. Bestetik, taldesaioetako eztabaidan bizilagun guztiek parte hartu ahal izateko, bakoitzari bere argazkietatik bost aukeratzea eskatu zitzaien. Azkenik, talde-laginaren tamaina txikia izan da, baina Photovoice metodologia talde-eztabaidetan erabiltzeko egokia [32]. Metodologia hau beste maila sozio-ekonomiko bat duen auzo batean erabiliz gero, emaitzak beste era batekoak izango liratekeela pentsa dezakegu, horrela adierazten baitute hainbat ikerketak [25, 26].

5. **ONDORIOAK**

Photovoice proiektu honek agerian utzi zituen Bilboko maila sozioekonomiko altuko elikadura-ingurunearen indarguneak eta ahuleziak. Parte-hartzaileek beren elikatzeko moduarekin lotutako elikadura-inguruneari buruzko 6 gai identifikatu eta landu zituzten: 1) Ohitura txarrak, 2) Kultura-aniztasuna, 3) Harreman sozialak, 4) Iraunkortasuna, 5) Merkataritzaren eraldaketa, eta 6) Ohitura osasungarriak. Metodologia hau erabilgarria izan daiteke, auzotarren iritzia eta haiek proposatutako gomendioak kontuan hartuta, elikadura-ingurunea hobetzeko politikak diseinatu ahal izateko.

BIBLIOGRAFIA

[1] Afshin, A. *et al*. 2019. «Health effects of dietary risks in 195 countries, 1990-2017: a systematic analysis for the Global Burden of Disease Study 2017». *The Lancet,* **393(10184)**, 1958-72.

[2] Robinson, E., Mcfarland-Lesser, I., Patel, Z. eta Jones, A. 2022. «Downsizing food: A systematic review and meta-analysis examining the effect of reducing served food portion sizes on daily energy intake and body weight». *British Journal of Nutrition,* **7(4)**, 1-39.

[3] Rousham, E.K., Goudet, S., Markey, O., Griffiths, P., Boxer, B., Carroll, C., Petherick, E.S. eta Pradeilles, R. 2022. «Unhealthy Food and Beverage Consumption in Children and Risk of Overweight and Obesity: A systematic Review and Meta-analysis». *Advances in Nutrition*, **1(4)**, nmac032.

[4] Medina-Remón, A., Kirwan, R., Lamuela-Raventós, R.M. eta Estruch, R. 2018. «Dietary patterns and the risk of obesity, type 2 diabetes mellitus, cardiovascular diseases, asthma, and neurodegenerative diseases». *Critical Reviews in Food Science and Nutrition*, **58(2)**, 262-296.

[5] Foresight, B.B. 2007. *Tackling Obesities: Future Choices – Project report (2nd Edition)*. Governement Office for Science, UK.

[6] Story, M., Kaphingst, K. M., Robinson-O'Brien, R. eta Glanz, K. 2008. «Creating Healthy Food and Eating Environments: Policy and Environmental Approaches». *Annual Review of Public Health*, **29(1)**, 253-272.

[7] Mete, R., Shield, A. Murray, K., Bacon, R. eta Kellet, J. 2019. «What is healthy eating? A qualitative exploration». *Public Health Nutrition*, **22(13)**, 2408-2418.

[8] Sleddens, E.F.C., Kroeze, W., Kohl, L.F.M., Bolten, L.M., Velema, E., Kaspers, P., Kremers, S.P.J. eta Brug, J. 2015. «Correlates of dietary behavior in adults: an umbrella review». *Nutrition reviews,* **73(8)**, 477-499.

[9] Caspi, C.E., Sorensen, G., Subramanian, S.V., eta Kawachi, I. 2012. «The local food environment and diet: a systematic review». *Health & Place,* **18(5)**, 1172-1187.

[10] Cobb, L.K., Appel, L.J., Franco, M., Jones-Smith, J.C., Nur, A., eta Anderson, C.A.M. 2015. «The relationship of the local food environment with obesity: A systematic review of methods, study quality, and results». *Obesity (Silver Spring)*, **23(7)**, 1331-1344.

[11] Jackson, S.E., Llewellyn, C.H. eta Smith, L. 2020. «The obesity epidemic – Nature via nurture: A narrative review of high-income countries». *SAGE Open Medicine*, **8**, 1-11.

[12] Bivoltsis, A., Cervigni, E., Trapp, G., Knuiman, M., Hooper, P. eta Ambrosini, G.L. 2018. «Food environments and dietary intakes among adults: does the type of spatial exposure measurement matter? A systematic review». *International Journal of Health Geographics*, **17(1)**, 1-20.

[13] Latawitz, T., Spielau, U., Lipek, T., Gausche, R., Lück, M., Kiess, W., Grande, G. eta Igel, U. 2019. «Neighbourhood deprivation and community nutrition environment: associations between the social and built environment and food availability». *Gesundheitswesen*, **81(5)**, 405-412.

[14] Congdon, P. 2019. «Obesity and urban environments». *International Journal of Environmental Research and Public Health,* **16(3)**, 464.

[15] Achón, M., Serrano, M., García-González, Á., Alonso-Aperte, E., eta Varela-Moreiras, G. 2017. «Present Food Shopping Habits in the Spanish Adult Population: A Cross-Sectional Study». *Nutrients*, **9(5)**, 508.

[16] Díez, J., Valiente, R., Ramos, C., García, R., Gittelsohn, J., eta Franco, M. 2017. «The mismatch between observational measures and residents'

perspectives on the retail food environment: a mixed-methods approach in the Heart Healthy Hoods study». *Public Health Nutrition,* **20(16)**, 2970-2979.

[17] HERGENRATHER, K.C., RHODES, S.D., COWAN, C.A., BARDHOSI, G. eta PULA, S. 2009. «Photovoice as Community-Based Participatory Research: a qualitative review». *American Journal of Health Behavior*, **33(6)**, 686-698.

[18] BUGOS, E., FRASSO, R. FITZGERALD, E., TRUE, G., ADACHI-MEJIA, A.M. eta CANNUSCIO, C. 2014. «Practical Guidance and Ethical Considerations for Studies Using Photo-Elicitation Interviews». *Preventing Chronic Disease*, **11**, e189.

[19] CALDWELL, W.B., REYES, A.G., ROWE, Z., WEINERT, J. eta ISRAEL, B.A. 2015. «Community Partner Perspectives on Benefits, Challenges, Facilitating Factors, and Lessons Learned from Community-Based Participatory Research Partnerships in Detroit». *Progress in Community Health Partnerships: Research, Education and Action*, **9(2)**, 299-311.

[20] DÍEZ, J., GULLÓN, P., SANDÍN, M., ÁLVAREZ, B., MARTÍN, M.P., URTASUN, M., GAMARRA, M., GITTELSOHN, J. eta FRANCO, M. 2018. «A Community-Driven Approach to Generate Urban Policy Recommendations for Obesity Prevention». *International Journal of Environmental Research and Public Health*, **15(4)**, 635.

[21] CUSACK, C., COHEN, B., MIGNONE, J., CHARTIER, M.J. eta LUTFIYYA, Z. 2018. «Participatory action as a research method with public health nurses». *Journal of Avanced Nursing*, **74(7)**, 1544-1553.

[22] WANG, C.C. eta BURRIS, M.A. 1997. «Photovoice: Concept, Methodology, and Use for Participatory Needs Assesment». *Health Education and Behavior*, **24(3)**, 369-387.

[23] WANG, C.C., CASH, J.L. eta POWERS, L.S. 2000. «Who Knows the Streets as Well as the Homeless? Promoting Personal and Community Action through Photovoice». *Health Promotion Practice*, **1(1)**, 81-89.

[24] BELÓN, A.P., NIEUWENDYK, L.M., VALLINANATOS, H. eta NYKIFORUK, C.I.J. 2016. «Perceived community environmental influences on eating behaviors: A Photovoice analysis». *Social Science and Medicine*, **171**, 18-29.

[25] DÍEZ, J., CONDE, P., SANDÍN, M., URTASUN, M., LÓPEZ, R., CARRERO, J.L., GITTELSOHN, J. eta FRANCO, M. 2017. «Understanding the local food environment: A participatory Photovoice project in a low-income area in Madrid, Spain». *Health & Place*, **43**, 95-103.

[26] GRAVINA, L., JAUREGI, A., FERNÁNDEZ-AEDO, I., DÍEZ, J., GITTELSOHN, J., COLÓN-RAMOS, U. eta FRANCO, M. 2021. «Residents' Insights on Their Local Food Environment and Dietary Behaviors: A Cross-City Comparison Using Photovoice in Spain». *International Journal of Environmental Research and Public Health*, **18(19)**:10134.

[27] https://www.bilbao.eus/opendata/catalogo/dato-habitantes-barrio-sexo-2016. Eguneratze-data: 01/01/2016.

[28] PATTON, M.Q. 2002. *Qualitative research and evaluation methods (3rd Edition)*. SAGE Publications, London.

[29] WANG, C.C. 1999. «Photovoice: A Participatory Action Research Strategy Applied to Women's Health». *Journal of Women's Health*, **8(2)**, 185-192.

[30] NYKIFORUK, C.I.J., VALLIANATOS, H. eta NIEUWENDYK, L.M. 2011. «Photovoice as a Method for Revealing Community Perceptions of the Built and Social Environment». *International Journal of Qualitative Methods*, **10(2)**, 103-124.

[31] RONZI, S., POPE, D., ORTON, L. eta BRUCE, N. 2016. «Using Photovoice methods to explore older people's perceptions of respect and social inclusion in cities: Opportunities, challenges and solutions». *SSM – Population Health*, **2**, 732-745.

[32] CATALANI, C. eta MINKLER, M. 2010. «Photovoice: A review of the literature in health and public health». *Health Education and Behavior*, **37(3)**, 424-451.

[33] FOSTER-FISHMAN, P.G., LAW, K.M., LICHTY, L.F. eta AOUN, C. 2010. «Youth ReACT for social change: A method for youth participatory action research». *American Journal of Community Psychology*, **46(1)**, 67-83.

[34] SHEA, J.M., POUDRIER, J. eta THOMAS, R. 2013. «Reflections from a Creative Community-Based Participatory Research Project Exploring Health and Body Image with First Nations Girls». *International Journal of Qualitative Methods*, **12(1)**, 272-293.

[35] MAHMOOD, A., CHAUDHURY H., MICHAEL, Y.L., CAMPO, M., HAY, K. eta SARTE, A. 2012. «A Photovoice documentation of the role of neighbourhood physical and social environments in older adults' physical activity in two metropolitan areas in North America». *Social Science and Medicine*, **74(8)**, 1180-1192.

[36] NEUMAN, W.L. 2014. *Social Research Methods: Qualitative and Quantitative Approaches (7nd Edition)*. Pearson, Edinburgh.

[37] HIRSCH, J.A. eta HILLIER, A. 2013. «Exploring the role of the food environment on food shopping patterns in Philadelphia, PA, USA: a semiquantitative comparison of two matched neighborhood groups». *International Journal of Environmental Research and Public Health*, **10(1)**, 295-313.

[38] MUNOZ-PLAZA, C.E., MORLAND, K.B., PIERRE, J.A., SPARK, A., FILOMENA, S.E. eta NOYES, P. 2013. «Navigating the urban food environment: Challenges and resilience of community-dwelling older adults». *Journal of Nutrition Education and Behavior*, **45(4)**, 322-331.

[39] PELLETIER, J.E., GRAHAM, D.J. eta LASKA, M.N. 2014. «Social norms and dietary behaviors among young adults». *American Journal of Health Behavior*, **38(1)**, 144-152.

[40] SANJEEVI, N., FREELAND-GRAVES, J. eta HERSH, M. 2018. «Food insecurity, diet quality and body mass index of women participating in the Supplemental Nutrition Assistance Program: The role of intrapersonal, home environment, community and social factors». *Appetite*, **125**, 109-117.

[41] WANG, M.L., PBERT, L. eta LEMON, S.C. 2014. «The influence of family, friend, and coworker social support and social undermining on weight gain prevention among adults». *Obesity*, **22(9)**, 1973-1980.

[42] BADER, M.D.M., AILSHIRE, J.A., MORENOFF, J.D. eta HOUSE, J.S. 2010. «Measurement of the local food environment: a comparison of existing data sources». *American Journal of Epidemiology*, **171(5)**, 609-617.

[43] WEBBER, C.B., SOBAL, J. eta DOLLAHITE, J.S. 2010. «Shopping for fruits and vegetables. Food and retail qualities of importance to low-income households at the grocery store». *Appetite*, **54(2)**, 297-303.

[44] MAYFIELD, K.E., HESSION, S.L., WEATHERSPOON, L. eta HOERR, S.L. 2020. «A Cross-Sectional Analysis Exploring Differences between Food Availability, Food Price, Food Quality and Store Size and Store Location in Flint Michigan». *Journal of Hunger & Environmental Nutrition*, **15(5)**, 643-657.

[45] KIMENJU, S.C., RISCHKE, R., KLASEN, S., eta QAIM, M. 2015. «Do supermarkets contribute to the obesity pandemic in developing countries?». *Public Health Nutrition*, **18(17)**, 3224-3233.

[46] CASPI, C.E., PELLETIER, J.E., HARNACK, L.J., ERICKSON, D.J., LENK, K. eta LASKA, M.N. 2017. «Pricing of Staple Foods at Supermarkets versus Small Food Stores». *International Journal of Environmental Research and Public Health*, **14(8)**, e915.

[47] WILSON, R., GEARRY, R.B., GRANT, E., PEARSON, J. eta SKIDMORE, P.M. 2014. «Home food availability is associated with multiple socio-economic indicators in 50 year olds from Canterbury, New Zealand». *Asia Pacific Journal of Clinical Nutrition*, **23(4)**, 714-722.

[48] CANNUSCIO, C.C., HILLIER, A., KARPYN, A. eta GLANZ, K. 2014. «The social dynamics of healthy food shopping and store choice in an urban environment». *Social Science and Medicine*, **122**, 13-20.

[49] OATES, G.R., PHILLIPS, J.M., BATEMAN, L.B., BASKIN, M.L., FOUAD, M.N. eta SCARINCI, I.C. 2018. «Determinants of obesity in two urban communities: perceptions and community-driven solutions». *Ethnicity & Disease*, **28(1)**, 33-42.

[50] BUDIG, K., DÍEZ, J., CONDE, P., SASTRE, M., HERNÁN, M. eta FRANCO, M. 2018. «Photovoice and empowerment: Evaluating the transformative potential of a Participatory Action Research project». *BMC Public Health*, **18(1)**, 432.